



**CD-ROMA**

Izenburua: 'Ttantto'. **Egileak:** Ikastolen Elkarteko IKT taldea eta Urtxintxa proiektuko egileak. **Ilustrazioak:** Aritz Trueba. **Adina:** 3 eta 4 urteko haurrentzat. **Argitaratzailea:** Ikastolen Elkartea.



Bai. Urtxintxa proiektuaren xedea da haurren garapena bultzatzea. Haurrak bere ikaste prozesuaren protagonismoa hartzea, ziurtasun afektiboa bermatzea eta autonomia bultzatzea dira Urtxintxaren bitartez lortu nahi diren helburuak. CDa diseinatzerakoan, hori guztia kontuan izan da, eta

haurra gai izango da jolasean bakarrik aritzeko: CDa martxan jarri, amaiera eman, inprimatu... azken finean, nahi dituzten jolasetan parte hartzeko aukera izango dute.

Zein da helburua?

Urtxintxa proiektuko material osagarria izatea da CD-ROMaren helburu nagusia. Modu ludiko eta atseginean aurkez-

ten dira jolasak, beti ere haurren aniztasuna errespetatuz eta autonomia eta sormena landuz.

Iratxe Ramirez

URTXINTXA PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

«Ikastolan lantzen diren edukiei ez ezik, jolasari ere indar berezia eman zaio»

Ikastolan Urtxintxa proiektua lantzen duten haurrek ederki ezagutzen dituzte Ttantto mantangorria eta haren lagunak. Hamahiru urte igaro dira Ttanttoren lehen bertsioa aurkeztu zutenetik. Itxuraz eta edukiz erabat berri dute, jolas-tuz ikasten jarrai dezaten haurrek.

Ttanttoren CD-ROM berritua aurkeztu duzue. Zergatik?

Duela bost urte Urtxintxa proiektuaren eguneraketa lanari ekin genion. Edukiari dagokionez, Ttantto CD-ROMa material osagarri gisa eraiki zen, lotura zuzena baitzeukan Haur Hezkuntzan Urtxintxan lantzen ziren ipuin, olerki, abesti eta hainbat jarduerekin. Hori dela eta, 2009-10eko ikasturtean, CD-ROMaren eguneraketa hasi genuen. Batetik, edukiak eta diseinua eguneratu eta hobetu ziren, eta, bestetik, teknikoki behar zituen

hobekuntzak ezarri zitzaizkion. Ttanttoren lehen bertsioak 13 urte bete ditu, eta hori informatikan gehiegi da. Pantailaren bereizmena oso txikia zen, eta aplikazio bera gaur egungo ordenagailuetan arazoak ematen hasita zegoen.

Zein dira berrikuntzak?

Aldaketa asko egin dira bertsio berrian. 3 urteko haurren ekintzaren adierazpen nagusia jolasa dela kontuan hartuta, ikastolan lantzen diren ohiko edukiei ez ezik, jolasari ere indar berezia eman zaio. Hainbat txoko ditu jokoak: Satorren txokoa, hiztegiarekin jolasteko; Inurrien txokoa, segidekin jolasteko; Margolanen txokoa, olerki, igar-kizun eta abestiekin lotuta dauden marrazkiak margotzeko; Ipuinen txokoa, ipuinak entzuteko; Balearen txokoa, zenbaki eta koloreekin jolasteko; Idazketa txokoa, lehenengo «idazketak» egiteko; Irudien txokoa, irudi erakargarriak

osatzeko; eta, azkenik, Dortokaren txokoa, memoria jolasak egiteko.

Orotara, zenbat jarduera proposatzen dira?

Urtxintxa proiektuan bezala, CD-ROMean ere, 11 gai azaltzen dira sarrerako orrian. Gai bakoitzaren aurretik, aipatutako zortzi jolas txokoak aurki daitezke. Txoko bakoitzean jolas asko dago. Gaiaren zenbakiaren arabera, zailtasuna ere areagotuz joango da. Lehenengo gaien errazena daude, eta 11.enean, zailenak. CD-ROM interaktibo honen jardueren ezaugarrietako bat da izaera ludikoa, haurrari jolasak eragiten dion motibazioa baitu ardatz. Haurrak afektiboki identifikatuko duen Ttantto gidari/lagunaren argibide, aholku, iradokizun eta animo hitzei jarraituz, jolas egingo du, gogoko duena aukeratuz.

Haurrak berak aukera dezake zer egin, beraz.**Ikastolen Elkarteko Urtxintxa proiektuari estuki lotuta dago CD-ROMa. Proiektuan parte hartzen ez duten haurrek ere erabil dezakete jokoak?**

Oinarrizko erreferentzia eskola-materiala izateak ez dio CD-ROM honi erabilgarritasuna kentzen eskolaz eta programazioaz at, bai jolasarako bai euskara (hizkuntza) lantzeko. Ez da beharrezkoa inolako aurrezagutzarik izatea jolasten hasteko, jolasaren bitartez proiektua ezagutzeko aukera izango dute, ipuinak, pertsonaiak,...

Eskolan bezala, etxean ere erabiltzeko modukoa da, beraz?

Bai. Euskarazko euskarri oso dibertigarria da. Bertan, kantak, olerkiak, jolasak eta abar lantzen dira, eta etxekoekin jolasteko aukera paregabea zabaltzen da. Haurrek bere kabuz jolasteko gai izan arren, etxekoekin jolasteko plazer ere izango dute. Oso aukera ona da, beraz, familian euskaraz jolasteko, eta, zergatik ez?, euskara ez dakitenek pixkanaka barnerratuz joateko eta ikasten hasteko.